



Enara Martin  
Aixerrota BHI, 14-15

# Aurkibidea

Sarrera .....	3
J. K. Rowling .....	3
 <i>Harry Potter eta sekretuen ganbera</i>	
Kokapena .....	4
Gaia .....	4
Argumentua .....	5
Pertsonaiak .....	5
Istorioa .....	6
Egituraketa .....	8
Baliabideak .....	9
Iritzia .....	10
Bibliografia .....	10
Webgrafia .....	10

# Sarrera

*Harry Potter eta sorgin harria* Harry Potter saileko bigarren liburukia da, J. K. Rowling idazle britainiarrarena. 1999an plazaratu zen, eta 2002. urtean filma egin zen. Euskaraz Elkarlanean eta Salamandra argitaletxeak plazaratu zuten 2000ko azaroan.

Harry Potter azti ausarta, Hogwartseko Azti eta Sorgin Eskolan lehenengo ikasturtea bukatu ondoren, bere osaba-izeba gogaikarrien etxean dago, bigarren ikasturtea noiz hasiko zain. Larri dago Harry gaixoa... Baina bere lagun Ron Weasley laguntzera etorriko zaio auto hegalaria batean. Harryk bigarren urtea du Hogwartsen, eta bigarren hori ere iazkoa bezain mugitua, arriskuz betea eta ziragarria izango da

## J. K. Rowling

Joanne «Jo» Rowling, (1965) J. K. Rowling eta Robert Galbraith izengoitien azpian idazten duen idazle eta zinema-produktore britainiarra da, Harry Potter liburu-tako saileko sortzailea izateagatik batez ere ezaguna dena. Harry Potterren liburuek arreta erakarri dute mundu osoan, sari ugari irabazita eta 450 milioi kopia baino gehiago salduta.

Eleberri hauek idazteaz gain, Rowling hasiera apala izatetik izugarri aberatsa izatera heltzeagatik ere ospetsua da. *Sunday Times Rich List* 2008ko edizioak 560 milioi libratako dirutza duela estimatu zuen, Britania Handian hamabigarren emakumerik aberatsena izanez. *Forbes*-ek 2008ko ospe boteretsuenen zerrendan Rowling berrogeigarren postuan kokatu zuen eta *Time* aldizkariak urte berean “Urteko Pertsonaia” aukeratu zuen, Harry Potter pertsonaiak eman izan zuen inspirazio sozial, moral eta politikoa nabarmenduz. Filantropo nabarmen bihurtu da, *Comic Relief*, *One Parent Families* eta *Multiple Sclerosis Society of Great Britain* karitate-erakundeen alde agertuz.

# *Harry Potter eta sekretuen ganbera*

## Kokapena

Rowlingek zail izan zuen *Harry Potter eta ganbera ezkutua* bukatzea. Izan ere, *Harry Potter eta harri filosofalak* piztutako itxaropenetara heltzeko gai ez izatearen beldur zen. Eskuizkribua Bloomsburyri aurrez ikusitako datan eman ondoren, hura apur bat gehiago ikuskatzeko denbora hartu zuen.

Esaterako, obraren lehen zirriborroetan, Nick Casi Burumoztua mamuak berak konposatutako kanta abesten zuen, bere baldintza eta bere heriotzaren zirkunstantziak azaltzen zituen. Baina sail hau eleberritik kanpo utzi zen olerkiak liburuko editoreari ez zitzaizkiolako axola izan; geroago J. K. Rowling-en webgune ofizialeko aparteko estra bat bezala argitaratu zen. Dean Thomasen familiaren aurrekarietako parte Rowlingek eta bere editoreek “beharrizanik gabeko etentzat” hartu zuten zutenez kanporatu egin zen eta kontuan hartu zuten Neville Longbotomen aurkikunde bidaiari “argumentu zentralerako garrantzitsuagoa” zela.

## Gaia

*Harry Potter eta sekretuen ganberak* banako baten nortasuna zerk eraikitzen duen aztertzen jarraitzen du, lehen liburuan hasi zena. Liburuak beraien benetako nortasunak ezkututzen saiatzen diren pertsonaia desberdinak erakusten ditu: Tammy Nezolek dioen bezala, Gilderoy Lockharti “identitate guztia falta zaio”, itxura oneko gezurtia baino ez delako.

Taldearen aurkakotasuna, aurreiritzia eta arrazismoa seriearen etengabeko gaiak dira. Harryren errespetua eta gainerakoenganako begirunea Dobbyren eta Sir Nicholaren pertsonaiengan ere ikusten da. Marguerite Krauseren arabera, eleberrian lorpenak, talentu naturaletan baino gehiago, asmatzeko ahalmenean eta lan gogorraren mendean daude.

# Argumentua

Bilbeak Harry Potteren Howarts ikastetxeko bigarren urtean jarraitzen du. Urte horretan zehar eskolako korridoreetako paretetako mezu batzuek Sekretuen ganbera ireki dela eta Slytherinen oinordekoak odol garbitik ez datozen ikasle guztiak hilko dituela ohartartzen dute.

Aipaturiko mehatxuak bete egiten dira: eskolako ikasle batzuei eraso egin eta harrituta geratzen dira. Urte guztian, Harryk eta bere lagunek erasoak ikertzen dituzte: urteak lehenago antzeko eraso bat gertatu zen eta, ondorioz, protagonistak bere etsai zaharrenaren historia gehiago ezagutzera eramaten du, Voldemort, bere gurasoak haurtxo bat zenean hil zituen.

## Pertsonaiak

**Harry Potter.** Berau da eleberriko protagonista, lehen liburuan haurtxoa zenean Voldemortek eragindako erasotik bizirik ateratzeagatik ospetsu egin zena. Harry parsel hizkuntza hitz egiteko gai dela erakusten da, sugeekin komunikatzeko balio duen hizkuntza, Slazar Slytherinekin, kasu. Pertsona askok Harryren ahalmen hori ezagutzen hasten direnez gero, Slytherinen oinordekoa dela susmatzen hasten da eta harri bihurtzeko erruduna dela. Harryk basiliskoa akabatzen du eta Ginny Weasley salbatzen du.

**Ron Weasley.** Berau da Harryren eta Hermionen lagunik onena. Harry konturatzen denean Dobbyk eragindako kalte baten ondorioz zigortuta dagoela erreskatatu egiten du auto hegalaria bidez. Howartsera eramaten duen trenera ailegatzen ez direnez, eskolaranzko bidea autoan egiten dute. Baina Sahats Boxeolarira erori eta, ondorioz, bere maklitxoa apurtzen du; horrek urte guztian arazoak eragiten dizkio.

**Hermione Granger.** Harryren adiskide onenetariko bat da. Magiari buruzko ezaguera ugari dituen eta Ron eta Harry gatazka larrietan sartzea galarazten duen neska burutsua da. Slytherinen oinordeko handia nor den eta eskolako ikasle batzuk nola harri bihurtu diren ohartzen da; hala ere, bere lagunei ezaguturikoa esatera doanean, harrituta geratzen da. Harry eta

Ron bera bisitatzera erizaindegira doazenean, informazioa bere eskuen artean duela konturatzen dira.

**Voldemort.** Honen izen benetakoa Tom Riddle da, eta Harryren etsairik zaharrena. Harryk bere egunerokoa aurkitzen du eta Salazar Slytherinen ondorengoa dela eta Sekretuen Ganbera ireki zuena izan zela ohartzen da. Harryk Tom Riddleen aurka egiten du Ganberan; Basiliskoko letaginaren pozoiarekin Voldemorten egunerokoa hondatzen du eta, horrela, Tom Riddlel akabatzen du.

**Gilderoy Lockhart.** Arte ilunen kontrako defentsa klasea ematen duen itxura oneko irakaslea da. Pinpirina eta harroa da eta denbora luzean beste mago garrantzitsu batzuen garaipenak lapurtuz ospetsu egin zen. Harryri eta Roni Sekretuen Ganberatik laguntzen die eta beraien memoria ezabatzen saiatzen duenean, Ronen hegaxka akastuna erabiltzen duenez, sorginkeriak buelta eman eta berari ematen dio.

**Rubeus Hagrid.** Gizaki erdi erraldoia giltzen eta Howartseko lurren zaindaria da. Hasieran, Harryk berak Sekretuen Ganbera lehen aldiz ireki zuena izan zela ondorioztatzen du. Hala ere, aurrerago, Tom Riddle izan zela jakiten da, baina Riddlek Hagridi errua bota eta, ondorioz, ikastetxetik kaleratu egin zuten. Sekretuen Ganbera berriro irekitzen denez, Hagridi berriro errua botatzen diote eta Azkabaneko espetxera bidaltzen dute.

**Albus Dumbledore.** Ikastetxeko zuzendaria da, bere fenixaren malkoek Harry heriotzatik salbatzen dute. Gainera, Dumbledorek Harryri Gryffindoreko ezpata bidaltzen dio basiliskoaren kontra egiteko. Lucius Malfoyengatik Azkabanera doa, geroago bueltatu arren.

**Myrtle Negartia.** Nesken komun batean bizi den mamua da. Bere istorioa Ganberarekin erlazionatuta dago, ganbera ireki zen lehen aldian bere bizitza galdu baitzuen. Informazio horrekin protagonistek harri bihurtzearen zergatia argitzen dute.

**Dobby.** Harry Hogwartsera itzuli behar ez duen eleberriaz ohartarazten duen etxe-elfoa da. Bera da  $9^{3/4}$  plataforma estaltzen duena, ikastetxera joatea eragotziz. Gainera, Malfoy familian lan egiten du eta beste elfoekiko desberdina da: libre izan nahi du eta bera askatzeko modu bakarra berari arropa oparitzea da. Amaierarantz, Harryk Dobby askatzea lortzen du.

# Istorioa

Harryren Howaerseko lehen ikastaroaren ondoren, bere osaba-izeben etxera itzuli da uda hara pasatzeko. Egun batean, Harryren gelan izaki bat agertzen da, Dobby deitutako etxe-elfoa: ikastetxeko bigarren ikasturtera ez duela joan behar ohartarazten dio, “arrisku hilgarrian” egongo baita; hala ere, Harryk ez dio jaramonik egin. Ondoren, Ron Weasley eta bere anai-arrebak bere etxera iritsi dira auto hegalarian eta Harryrekin ihes egin dute.

Harryren bigarren urtearen hasiera eta berehala, korridoretako paretetako mezuek sekretuen ganbera berriro ireki dela eta Slytherinen oinordekoak odol zikineko ikasleak hilko dituela erakusten dute –horien artean, Hermione–. Horren ondoren, eskolako hainbat biztanle harrিতා aurkitzen dituzte korridoretan. Bitartean, Harryk, Ronek eta Hermionek Myrtle negarrez aurkitu dute. Ganbera ireki zen azken aldian hil zen neska baten mamua, zeinaren gordelekua emakumeen komuna den, bera hil zen tokia. Myrtleek “Tom Marvolo Riddle”ren izena eramaten duen egunerokoa erakusten dio Harryri. Bere orrialdeak zuri egon arren, Harryk bertan idazten duenean erantzuten du. Liburuak Hogwarts berrogeita hamar urte lehenago erakutsi dio. Hor une hartako ikasle batek, Tom Riddle, ganbera irekitzeagatik Rubeus Hagridi errua botatzen ikusten du.

Lau hilabete geroago, egunkaria modu misteriotsuan lapurtu dute; handik gutxira, Hermione harrিতා geratzen da. Hala ere, Hermionek erruduna basilisko bat dela azaltzen duen oharra sostengatu du, suge itzela, begietara zuzenki begiratzen diotenentzat hilgarria dena; baina, azal islatzailearen bidez begiratzen diotenak soilik bihurtzen dira harri. Erasoek jarraitzen duten bitartean, Magia-ministroak Hagrid magoen espetxera bidaltzen du. Lucius Malfoyek eskolako gobernadoreek Dumbledore bere zuzendari kargutik kendu dutela iragartzen du.

Ronen arrebarik gazteena ganberara eramanez ondoren, arte lunen kontrako defentsako irakasleak, Gilderoy Lockhartek, egoera kontrolatu behar duela erabakitzen da; hala ere, Harry eta Ron bere bulegora sartu direnean Lockhartek iruzurra dela eta beste mago garrantzitsu batzuen garaipenak lapurtu dituela erakusten du. Lockhart armagabetuz eskolako estoldetara zuzentzen dute. Bertan, Lockhartek Ronen hagaxka magikoa hartzen du eta mutilen memoria ezabatzen saiatzen da, baina Ronen hagaxka kaltetu zen eskola urtearen hasierako istripu batean eta sorginkeriak huts egiten du. Eraitza bezala, Lockhartek erabateko amnesia jasaten du,

tuneleko leku bat hondatzen da eta Harry Ronengandik eta Lockhartengandik bananduta geratzen da.

Harry ganbera ezkutuan sartzen da eta Ginny egunerokoaren ondoan konortea galduta aurkitzen du. Harry aztertzen dagoen bitartean, Tom Riddle agertzen da eta egunerokoan bildutako oroit-idazki bat dela azaltzen du: Ginnyk bertan bere itxaropenak eta beldurrak idatzi zituen eta Riddlek atsegina izatearen itxura egiteagatik bere konfiantza irabazi zuen. Haren konfiantza baliatu eta ganbera irekitzeko erabili zuen. Gainera, Riddlek Voldemort nerabezeroan dela erakusten du. Gero, Ginny erasoetako arduraduna zela ohartu zenean bainuan egunerokoa botatzen saiatu zela jakiten du. Riddlek Harry hiltzeko basiliskoa askatu du, baina Dumbledoreren Fenixak Gryffindoren ezpata ekartzen du. Harryk ezpata erabiliz basiliskoa suntsitzen du, izakiaren letagin pozoitsuek kosk egin ondoren. Horregatik, Fenixak bere malkoekin mutila sendatzen du. Harryk egunerokoa basiliskoaren letagin batekin sastakatzen du eta Riddle desagertu egiten da. Fenixak Ginny eta Harry tuneletik kanpora eramaten ditu.

Harryk gertatutakoa Dumbledoreri kontatzen dio, berriro zuzendaria denari. Harryk bere beldurrak zuzendariari kontatzen dizkio (benetan Gryffindorreko ikaslea bazenaren beldurra), Dumbledorrek Harryk Gryffindorreko etxea aukeratu zuela eta etxeko kide batek soilik Godric Gryffindoren ezpata erabili ahal zuela erantzuten dio. Harryk Lucius Malfoy ikasle guztiak eskola liburuak erosten zituzten bitartean egunerokoa Ginnyren liburuen artean jartzeaz salatzen du. Azkenik, basiliskoak eragindako harri bihurteten biktima guztiak berpizten dira.

## Egituraketa

Liburu honen hariak lehena amaitu zen tokian jarraitzen du, hari-mutur solteak aurreko istorioari lotuz. Gainera, aurreko obraren egitura bera du: Harry Dursleyen etxean dago eta, gero, Hogwartsera itzultzen da, argitu behar duten zerbait gertatzen den tokian. Azkenean, Dursleyen etxera bueltatzen da.

Egitura klasikoa du: hiru atal nagusi ditu eta kapitulutan banatuta dago.



# Baliabideak

Liburu honetan Rowlingek talentua eta asmamena erruz erabiltzen ditu, pertsonaien elkarrizketetan Weasley bikienetan batez ere, baita Sir Nicholas mamua burua moztutako talde bikain batean onartzen ez denean edo Weasley jaunaren jende komunaren objektuen lilura kontatzen duenean ere.

Bigarren parte honetan eleberriak tolerantzia azpimarratzen du oso era eraginkorrean, istorioko parte garrantzitsua izatea lortzen du, baina obra tolerantziaren bertutei buruzko panfleto bat ez bihurtzeko gai da. Istorioan inola ere jasan ezin diren pertsonaiak daude, adibidez, Draco Malfoy, Slytheineko lagun antipatikoa, eta bere familia.

Edward Duffyek, Marquette Unibertsitatearekin lotutako irakasleak, ganbera eskutuaren pertsonaia nagusi bat liburu bat dela dio: Ginny jabetzen den egunerokoa. Duffyk Rowling iturri informazioko kontsumo pasiboaren aurkako ohartarazpena izaten saiatu zela dio. Beste alde batetik, Bronwyn Williamsek eta Amy Zengerek egunerokoa istanteko mezularitze sistema bat bezalakoa zela azpimarratu zuten.

Liburu sail honen xehetasun nahiko interesgarri bat bere atemporalitatea da, autoak, telefonoak eta hegazkinak biltzen ditu, baina data zehatzik edo beste teknologia mota baten existentziako seinalerik ez dago; argi uzten dena da Ingalaterran XX. mendeko urteren batean garatzen dela, nahiz eta fikzio-espazioa edozein lekutara moldatzeko behar bezain zabala izan. Ia edonon, edozein pertsona Harry Potterekin identifika daiteke eta, beharbada, hori da obra bikain honen meriturik handiena.

# Iritzia

Hainbat kritikarik identitate pertsonala eleberriko gai nagusia dela nabaritu dute, eta horrek arrazismoaren gaiari ekiten diola pertsonaia ez magikoei, ez gizakiei eta ez bizidunei ematen zaien tratamenduaren bidez. Beste kritikari batzuek Tom Riddleren egunerokoa fidagarritasuna egiaztatu ezin den informazio iturrien onarpenaren kontrako ohartarazpen bezala deskribatu zuten.

Liburuko Harry lehenengo liburukoaren antzekoa da: bere osaba-izeben etxean bizitzea jasanezina dela pentsatzen du, eta Howarts munduko lekurik onena dela uste du. Hala ere, Bilbeak aldatzen du eta Harryk erantzukizun handiagoa du serieko lehen liburuan baino.

Lehen liburuan ez bezala (Hogwartsi eta komunitate magikoari buruz gehiago tratatzen zen), bigarrenak bere buruari buruz zalantzak dituen Harry pertsonaia erakusten du; adibidez, Slytherin eta ez Gryffindor-en artean aukeratu behar zela pentsatzera heltzen da. Pentsamendu honek liburu guztian zehar torturatzen du eta kapela sailkatzaileari ea bere erabakiari buruz seguru ote dagoen galdetzen dio.

# Bibliografia

*Harry Potter eta sekretuen ganbera*, J.K. Rowling. Salamandra.

# Webgrafia

- [http://es.wikipedia.org/wiki/Harry\\_Potter\\_y\\_la\\_c%C3%A1mara\\_secreta](http://es.wikipedia.org/wiki/Harry_Potter_y_la_c%C3%A1mara_secreta)
- [http://es.wikipedia.org/wiki/Harry\\_Potter](http://es.wikipedia.org/wiki/Harry_Potter)
- [http://es.wikipedia.org/wiki/Harry\\_Potter\\_y\\_la\\_c%C3%A1mara\\_secreta](http://es.wikipedia.org/wiki/Harry_Potter_y_la_c%C3%A1mara_secreta)
- [http://es.harrypotter.wikia.com/wiki/Serie\\_Harry\\_Potter](http://es.harrypotter.wikia.com/wiki/Serie_Harry_Potter)
- [http://html.rincondelvago.com/harry-potter\\_1.html](http://html.rincondelvago.com/harry-potter_1.html)
- [http://html.rincondelvago.com/harry-potter-y-la-camara-secreta\\_j-k-rowling\\_2.html](http://html.rincondelvago.com/harry-potter-y-la-camara-secreta_j-k-rowling_2.html)